


Mikel Laboa, Zumetaren hizkuntzan

Lagun eta sorkuntza kide izan zuen musikariaren irudiak bildu ditu margolariak 'Xume' liburuan

Elixabet Epelde Donostia

1960ko hamarkadaren erdialdean ezagutu zuten elkar Mikel Laboak (Donostia, Gipuzkoa, 1934-2008) eta Jose Luis Zumetak (Usurbil, Gipuzkoa, 1939), eta ordutik «etengabeko harremana» izan zutela kontatu du margolariak. «Ardo batzuk ere edan genituen elkarrekin...», gogoratu du, umoretsu. Izan ere, lagun eta sorkuntza kide izan ziren bi artistak urteetan, eta harreman horren lekukotza jaso nahi izan du EHUk eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako Mikel Laboa katedrak jardunaldi batzuetan. Bere hizkuntza irudiak direla defendatuz, Laboaren hainbat irudi sortu ditu margolariak, musikaria berarentzat nor izan zen eta harekin zein harreman izan zuen azaltzeko. Testigantza hori liburu bilakatu dute: *Xume. Laboa Zumetarenean* (Elkar).

Laboa bera ageri da *Xume* liburuko marrazki guztietan, musikariaren ikur bilakatu zen txapela beltza soinean, gehienetan. Errealitate gertuago batzuetan; irudimenari askatasun erabatekoa emanda, besteetan. Bakarrik gehienetan, eta lagunekin irudi-



Jose Luis Zumeta, Marisol Bastida eta Juan Kruz Igerabide, *Xume* liburua eskutan dutela. JON URBE / ARGAZKI PRESS

ren batean. Guztiak liburu horretarako egin ditu Zumetak, eta, kontatu duenez, «oso erraz» egin ditu: «Bakarrik bukatzen ziren; kasik konturatu ere egin gabe osatu ditut».

Juan Kruz Igerabide Mikel Laboa katedrako zuzendariak azaldu duenez, irudiak bere horretan agertzen dira liburuan, inolako azalpenik gabe, eta irakurleari dagokio irudi horiek interpretatzea. «Zumetak Laboa nola biziduen eta nola irudikatzen duen kontatzen da liburu honetan. Baina norberari dagokio irudikapen hori egitea». «Azalpen bakar gisa,

Laboak musikatutako zenbait poema ageri dira», Igerabidek argitu duenez. «Laboak asko maite zituen poetez inguratu dugu mar-

Irudiekin batera, Laboak musikatutako zenbait poema ageri dira, Igerabidek argitu duenez. «Laboak asko maite zituen poetez inguratu dugu mar-

golariaren lana», gaineratu du idazleak. Hori horrela, Bernardo Atxagaren, Joxan Artzeren, Xabier Leteren, Salvador Espriuren eta Bertolt Brechten poemak ageri dira, besteak beste. Irudi guz-

tiak lotuz, berriz, Laboak musikatutako zen Joseba Sarrionandiaren *Lili bat* poema. Azken hori oso modu «sotilean» idatzi dute, Igerabideren hitzetan.

Xume izenburua jarri diote liburuari, Igerabidek esatera «zerbait xumea» egiteko helburuz abiatu zutelako proiektua, eta «jarrera xumearekin», gainera. Baina emaitza oso ederra dela gaineratu du. «Liburu honek opari bat izan nahi du», adierazi du.

Zumetak azaldu duenez, ez luke jakingo egin dituenetik Laboaren irudi bat aukeratzen: «Hainbeste egin ditut Mikele-

nak!». Baina oholtza gainean Laboa zutik eta gitarra eskuan duela agertzen den marrazkia oso gustuko duela aitortu du, gero. Margolariak esan duenez, «askatasun osoz» aritu da lanean, Laboaren irudiak nahi bezala eginez. Izan ere, gero gehitu dizkiote testuak, liburua osatzeko.

Zumetaren obran ohikoak diren kolore indartsuak erabili ditu laguna irudikatzen, eta pintzelak baztertu, eta tabletarekin lan egin duela azaldu du. «Badaramatzat bi urte tabletarekin lanean, eta gustura nabil».

Laboa, itsasontziko kapitain

Bi artisten harremanaren adierazleetako bat dira Laboaren diskoetako azalak. Izan ere, laugarrenetik aurrera, Zumetak eginak dira. «Egiten nuen guztia beti ondo iruditzen zitzaien. Beti zegoen pozik emaitzarekin, eta ez zen inoiz kexatzen», aitortu du margolariak. Marisol Bastidak argitu duenez, dena den, azken diskorako egin zion irudia bereziki maite zuen musikariak. Itsasontziko kapitain bat bezala irudikatu zuen Laboa Zumetak, 2007ko *Lekeitioak* lanaren berrargitalpenan. «Mikelek beti gustuko zituen Jose Luisen lanak, baina disko haren azalarekin zoratzen zegoen», adierazi du Bastidak.

Laboaren heriotzaren bosgarren urteurrenean dator omenaldi ere izan nahi duen liburua; izan ere, herenegun bost urte bete ziren musikaria hil zela.